ere, konponbide hori batez ere komunitatearen trinkotzetik etorriko zaio.

- Arriskuan dagoen hizkuntza-komunitate baten normalizazioa ez zaie bakarrik komunitate horretako hiztunei interesatzen, baizik eta gainerako herritar guztiei eta gizateria osoari ere bai, gizartea giza garapenerako bidean jartzen duelako.

Garrantzi handia ematen dio Txepetxek boterearen gaiari. Normalizazioa lortzeko hizkuntza-botereak eta botere politikoak bat egin behar dute, lurraldean garrantzirik handiena duten pertsonaiak hizkuntzarentzat ere garrantzitsuak izan daitezen. Bi botereak ez badatoz bat, botere politikoa hizkuntzaren zerbitzura jarri beharko litzateke.

Goian esan bezala, Txepetxek diskurtso berri baten beharra sumatzen du normalizazioa lortzeko. Diskurtso berri hori berdintasunaren diskurtsoa da (Sánchez Carrión, 1999). Hizkuntza gutxituak funtzioak berreskuratu behar ditu, baina, gainera, hizkuntza nagusiak ez duen funtzio garrantzitsu berria lortu behar du, ez baita nahikoa hizkuntza nagusian egiten den guztia berdin-berdin baina hizkuntza gutxiagotuan egitea. Funtzio berri horrek hizkuntzen berdintasuna bultzatu eta eredu iraunkorra garatuko du herri, hizkuntza eta kultura guztien artean. Helburua, beraz, ez da hizkuntza gutxitua gehiengoaren hizkuntzaren ordez ezartzea; gainera, hizkuntza nagusiaren hiztunak ez dira etsaiak, eta normalizazioak ez du esan nahi inor baztertzea.

Azken helburua, beraz, hizkuntza-nazioen elkarbizitza da, eta horrek bi forma izan ditzake:

- Autonomia osoa (LAUS eredua edo TAU egitura): nazio bakoitza oso-osorik autonomoa da eta beste nazio batzuekin batzen da nazioarteko erakundeetan.
- Konfederazioa (NYR eredua edo Hed egitura): kolinguismoa, hizkuntza-nazio bat baino gehiago elkarrekin federatzen dira, berdintasunean.

Bere ekarpen teorikoak Bilbon nola gauzatu aztertu zuen Txepetxek (Sánchez Carrión, 1999). Lan horretan berretsi egiten du Bilbon euskararen normalizazioa lortzeko oinarria euskaldunen komunitatea trinkotzean oinarritu behar dela eta, gainera, oinarrizko baldintza kuantitatiboak (hiztun-kopurua) eta kualitatiboak (izateko nahia) badaudela horretarako.

5.4.2. Fishmanen RLS (Reversing Language Shift) edo hizkuntza indarberritzea

Joshua A. Fishman mundu-mailan soziolinguistikako egilerik garrantzitsuenetakoa da. Aitzindaria izan da hizkuntzaren soziologian eta oso egile emankorra da. Euskal Herrian behin baino gehiagotan egon da, tartean Eusko Jaurlaritzaren aholkulari-lanetan, eta eragin handia izan du azken hamarkadetan egin den hizkuntza-politikan (Zalbide eta Erize, HIZNET argitaratu gabe).

Fishmanek kezka handia du munduko leku askotan gertatzen ari den hizkuntza-ordezkapenarekin (ingelesez *language shift*) eta kezka horri erantzun nahian argitara eman zuen hizkuntzak indarberritzeko bere eredua (ingelesez *Reversing Language shift, RLS*) (Fishman, 1991). Geroztik,

eredu horrek oihartzun handia izan du eta duela gutxi berritu egin du (Fishman, 2001) zenbait hizkuntzaren egoera, tartean euskararena ere bai, bere ereduaren arabera aztertuta.

Bi hizkuntza lurralde berean dauden egoera hartzen du aztergaitzat: bat menpeko hizkuntza da (X-era eta bere hiztunak X-dunak) eta bestea hizkuntza nagusia (Y-era eta bere hiztunak Y-dunak). Hizkuntza-ordezkapena gertatzen da hiztun-talde batek hainbat funtziotan X-eratik Y-erara aldatzen duenean sistematikoki. Garrantzitsua da azpimarratzea aldaketa hori ez zaiola gertatu behar banakako hiztunari, baizik eta hiztun-talde bati. Gainera, hizkuntza-ordezkapena ez da bat-batean eta arlo guztietan batera gertatu ohi, jardungune batzuetatik hasita baizik (hauek dira jardunguneak: familia, auzoa, lana, aisia, eskola, eliza eta administrazio publikoa). Jardungune bakoitzean ere baliteke harreman sare guztietan ez gertatzea aldi berean hizkuntza-ordezkapena (adibidez, familiako harreman-sareak hauek dira: senar-emazteen artekoa, anai-arreben artekoa, gurasoen eta seme-alaben artekoa…). Hori guztia hizkuntza-trebetasunekin lotzen du Fishmanek eta hizkuntza-ordezkapena horietako bakoitzean gerta daitekeela azaltzen du (lau trebetasunak hauek dira: hitz egin, entzun, idatzi eta irakurri). Beraz, hizkuntza-ordezkapenaren ardatzetariko bat erabilera esparruena da, erabilera esparrutzat hartuta jardunguneak eta harreman sareak.

Hizkuntza-ordezkapenaren beste ardatza denborarena da, bat-batean ez denez gertatzen, garrantzitsua delako aztertzea urteetan zer-nolako bilakabidea izan duen hizkuntzaren erabilerak.

Fishmanen hizkuntza indarberritzeari buruzko teoriak oinarri bat du: hizkuntza bati eustearen zutabe nagusia belaunaldi arteko transmisioa da. Hizkuntza bat ez bada gurasoengandik seme-alabengana transmititzen ez du etorkizunik eta hori oso kontuan izan behar da hizkuntza indarberritzeko ahaleginak egiterakoan.

Bere ustez, hizkuntza-ordezkapena ez da isolatuta gertatzen, bestelako faktore eta egoerekin batera baizik. Hauek dira hizkuntza bat zergatik ordezkatzen den aztertzerakoan aurkitzen diren zenbait arrazoi:

- **Hizkuntza erabiltzeko eta defendatzeko debekua**: hori bi komunitateen arteko egoera gatazkatsuaren erakusgarri da, hizkuntza nagusiko komunitateak menpeko hizkuntza duena ez duela errespetatzen adierazten duelako; hizkuntzaren gaian hala gertatzen bada, beste horrenbeste gertatuko da bestelako arloetan ere. Euskal Herrian hori gertatu da urte luzeetan bai Frantziako Estatuaren aldetik, bai Espainiako Estatuaren aldetik.

- **Dislokazio fisikoa eta demografikoa**. Dislokazio honek hiru arrazoi fisiko izan ditzake: gosetea, katastrofe naturalak eta beste pertsona batzuek eragindako txikizioak (adibidez gerrak edo genozidioak); arrazoi demografikoen artean, berriz, migrazioak daude (etorkinak iristea edo bertakoek alde egitea), jaiotze tasak jaistea eta urbanizazioa. Oso garrantzitsua da fisikoki osasuntsuak eta demografikoki X-dunez kontzentratuak diren guneak izatea X-erak bizirik jarrai dezan. Gune horietan X-era izango da nagusi; hizkuntzaren arnasguneak izango dira. Arnasgune horiek ez dira ghetto isolatuak izango, are gutxiago gaur egungo gizarte globalizatuan isolatuta egotea ia-ia ezinezkoa delako.

Hizkuntzaren arnasguneak: Fishmanek *breathing space* deitzen ditu. Hizkuntza gutxitua indarberri dadin ezinbestekoa da hizkuntza hori nagusi izango den gune geografikoak egotea. Ez dira ghettoak, ez baitira isolatuta egon behar. Gune horietako biztanle gehienek dakite hizkuntza gutxituan hitz egiten eta hizkuntza hori normaltasunez erabiltzeko baldintzak daude eta belaunaldiz belaunaldiko transmisioa naturaltasunez gertatzen da.

- **Dislokazio soziala** askotan gertatzen da X-dunen taldea egoera sozial txarragoan dagoela, botere gutxiago daukalako; horrenbestez, X-dunei dagozkien elementuek ere, tartean hizkuntzak, prestigio txikiagoa izango dute eta egoera sozial hori hobetzeko Y-era ikasi beharko dute, sarritan X-dun izateari lagata eta suizidio kulturalari bide emanda. Horren aurrean, Fishmanek elebitasun egonkorra eta aniztasun kulturala proposatzen ditu, maila orokorrean ezin bada, gutxienez X-dunen artean. Komenigarria iruditzen zaio, gainera, X-dunen kontrolpean egongo den oinarri ekonomiko bat edukitzea; izan ere, oso garrantzitsua da X-era gizarteko ordainsari sisteman behar bezala txertatua egotea, X-dunen taldea ere erakargarria izan dadin.
- **Dislokazio kulturala** modernizazioaren eta demokratizazioaren ondorioz eragin liteke dislokazio mota hau; izan ere, gizarte-mota desberdin asko elkarrekin harremanetan jartzen dituzte batak zein besteak eta ahuldu egiten dituzte tokian tokiko desberdintasun kulturalak eta homogeneizazio handia eragin hezkuntzaren eta komunikabideen bitartez, esate baterako. Dena den, irtenbide gisa Fishmanek dio menpeko hizkuntza duten komunitateek ezin diotela uko egin ez demokraziari eta ezta modernizazioari ere, eta horregatik lotu egin behar direla kultura eta hizkuntza indarberritzea modernizazioarekin eta demokratizazioarekin. Hizkuntzak aurrera egin dezan oso garrantzitsua da komunitateak sentimendu positiboa izatea hizkuntza horrekiko eta bere nortasun sozialarekiko.

Hizkuntza-ordezkapenaren prozesua gelditu eta buelta emateari Fishmanek *Reversing Language Shift (RLS)* deitzen dio, eta euskaraz **hizkuntza indarberritzea** esaten zaio.

Hizkuntza indarberritzeko, berebiziko garrantzia du diagnostiko egokia edukitzeak eta Fishmanek tresna bat eskaintzen du egoeraren diagnostikoa egiteko: belaunaldi arteko etenaren eskala (*Graded Intergenerational Disruption Scale, GIDS*). Lurrikarak neurtzeko Richter-en eskalaren antzeko funtzionamendua duen eskala da, zenbat eta handiagoa izan eskalan dagokion zenbakia, orduan eta larriagoa izango da egoera.

Hauek dira Fishmanen eskalaren zortzi mailak, larrienetik hasita (Fishman, 1991):

8. maila: hizkuntza berreraikitzea azken mohikanoen artean. Geratzen diren hiztunak zaharrak dira eta ez dute harremanik beste hiztunekin, ez dago hiztun komunitaterik edo sarerik. Horrelako egoera batean egin litekeena da adituek hizkuntza berreraiki eta ikasi nahi duten heldu

batzuei irakatsi. Behin egoera honetara iritsiz gero oso zaila da egoerari buelta ematea. Maila hau gertatu zen Nafarroako edo Arabako zenbait herritan azken euskalduna isolatuta gelditu zenean.

7. maila: zaharrek bakarrik hitz egiten dute. Badago hiztun sare bat, baina hiztun gehienei seme-alabak izateko garaia pasa zaie eta ondorengoek ez dakite hizkuntza horretan hitz egiten. Gazteei hizkuntza irakasteko eta eurekin X-erazko harreman sareak sortzeko erabil litezke X-dun zaharrak. Helburua da seme-alabak izan ditzakeen belaunaldia X-eraz jakin eta egingo duena eta hurrengoei hizkuntza horretan egingo diona. Adibidez, Zeelanda Berrian haur eskola maorietan aitona-amonak erabili dituzte haurrek hizkuntza ikasi eta erabil dezaten (Benton eta Benton, 2001). Eskalaren maila hau Ipar Euskal Herriko herri askotan gertatzen ari da XXI. mendearen hasieran.

6. maila: belaunaldi arteko ahozkotasun informala, kontzentrazio demografikoa eta sustapen instituzionala lortzea. Egoera honetan belaunaldi guztietako jendeak daki X-eraz, baina gero eta sarriago egiten dute beste hizkuntzan euren artean, baita ingurunerik intimoenetan ere. Fishmanen ustez ezinbestekoa da hizkuntzari bizirik eustea etxe barruan eta lagun artean. Egoera honi aurre egiteko bi puntu ikusten ditu: gazteek X-eraz egitea lortu behar da eta demografikoki kontzentratua eta belaunaldien arteko etenik gabeko guneak sustatu behar dira. Gure kasuan gazteek arazorik gabe leku guztietan euskaraz egingo duten guneak dira horiek, batez ere euskaraz biziko diren guneak. Ezinbestekoa da hizkuntzarentzat arnasguneak izatea. Horrelako gunerik sortu ezin denerako, beste proposamen batzuk egiten ditu: ahal diren bide guztiak erabiltzea X-dunek elkarrekin harremana izan dezaten Internet bidez, telefonoz, elkarrekin egiteko ekintzak antolatuta... komunitate-sentimendua indartzeko eta horrekin batera familia barruko ekintzak eratzea X-eraz ez dakiten kideak hizkuntzara ahalik eta gehien hurbiltzeko. Seigarren maila hau funtsezkoa da, hori gainditu ezean ez dagoelako zereginik. Maila honetako egoera gaur egun Euskal Herriko toki askotan gertatzen da.

5. maila: X-dunak euren hizkuntzan alfabetatzea. Horretarako, kontuan hartu behar da seigarren maila gaindituta egon behar dela. Alfabetatzeak beste hizkuntzarekiko menpekotasunetik askatzen lagunduko die hizkuntza gutxituko hiztunei eta elkarrengandik hurbilago egoten. Azken hamarkadetan lan handia egin da alor honetan Euskal Herrian.

Hemen bukatzen da eskalako multzo bat eta beste bat hasten da. Hemendik aurrera ezinbestekoa da agintarien parte-hartzea, baina honainoko lau mailetan batez ere hiztun-komunitateak egin behar du lan eta izan behar du protagonista ezinbestean.

4. maila: lehen mailako derrigorrezko hezkuntza X-eraz. Bi motatakoa izan liteke maila hau: 4a) X-dunen kontrolpean eta X-dun irakasleekin dauden eskolak edo 4b) Y-dunen kontrolpean dauden eskolak X-era sartu dutenak. Fishmanentzat argi dago 4a motako eskolek aukera gehiago dutela hizkuntza indarberritzen laguntzeko. Maila honetan ere lan handia egin da Euskal Herrian, XX. mendeko 60ko hamarkadatik aurrera.

3. maila: hizkuntza lanean erabiltzea. Lagungarri da hau hiztunei oinarri ekonomikoa ematen dielako. Bi motatako enpresak bereizten dira: X-dunen esku daudenak eta Y-dunen esku daudenak nahiz eta X-dun langileak eduki. Dena den, arriskutsua ere izan daitekeela dio Fishmanek; izan ere, ekonomikoki arrakastatsua suertatzen bada komunitatearen lurraldea, baliteke Y-dun etorkinak iristea lan bila eta X-eraren egoera artean ere zailagoa bihurtzea. Berriro ere prak-

tikotasunerako deia egiten du Fishmanek eta egingarritasunari arreta berezia jartzeko eskatzen du: hizkuntzaren arnasguneetan edo hortik hurbil daudenetatik ekiteko eta gogoan izateko familia eta lagunarte hurbila dela garrantzitsuena hizkuntzaren indarberritzean. Maila honetan, XX. mendeko azken hamarkadatik aurrera egin da lan batez ere Gipuzkoa eta Bizkaian, baina oraindik ere enpresa gehienetara ez da iritsi.

2. maila: hizkuntza administrazio publikoan eta tokiko komunikabideetan erabiltzea. X-dunentzako lanpostuak sortzen dira eta horrek X-dun izatearen bideragarritasun ekonomikoa handitzen du. Eremu honetan ere egingarrienetik ekiteko gomendatzen du, hain zuzen ere, hizkuntzaren arnasguneetan daudenetatik. Horrek arrisku bat duela esaten du, hain zuzen ere gorago egiteko Y-erazko lanpostuetara igaro behar izatea.

1. maila: hizkuntza goi-mailako hezkuntzan, lan-munduan, komunikabideetan eta administrazio publikoan. Hau da maila gorena hizkuntza indarberritzean, baina arriskua ez da desagertzen; izan ere, hizkuntza-ordezkapena gertatzeko arriskua ez da sekula desagertzen eta komunitateak erne egon beharko du.

Hizkuntza indarberritzea lortzeko, helburu errealistak jarri behar dituzte hizkuntza-politikako eragileek, duten boterearen, bitartekoen eta baldintzen arabera, hizkuntza-ordezkapenaren muina zein den ahaztu gabe, hain zuzen ere belaunaldien arteko transmisioa. Ahaleginak modu egokian sekuentziatu behar dira alferlanik ez egiteko.

Prozesuari buelta emateko oinarria hiztunen eta hizkuntzaren defendatzaileen autoantolamendua izan behar da; ezin da prozesua utzi hizkuntzaren biziberritzean interesik ez dutenen esku, Fishmanen ustez, oso garrantzitsua iruditzen baitzaio hizkuntza-komunitatearen zeregina. Plangintzaren eragin-eremuei dagokienez, garrantzi handia ematen dio familiari, norberaren hurbileko komunitateari (*Gemeinschaft* deritzon horri) eta identitateari; hain zuzen ere botereari eta kanpoko gizarteari (*Gesellschaft* deritzon horri) baino garrantzi handiagoa. Hizkuntza berarekin batera doan kultura osoarekin ulertu behar da. Etengabe gertatzen da kultura-aldaketa gizarte batean, baina gizarteak aldaketa hori gidatzeko ahalmena behar du, autoerregulatzeko, horrela X-erazko arnasguneak eta harreman sarea eraiki ahal izateko. Hizkuntza galtzen duen gizarteak, besteak beste, autoerregulatzeko gaitasuna ere galtzen du.

Hizkuntza-politika asko nazio-mailan bakarrik eztabaidatzen dira eta hori ez da maiz mailarik egokiena Fishmanen ustez; izan ere, makro mailako politikak baino mikro mailakoak beharko ditu oso egoera larrian dagoen hizkuntzak eta familietatik hasi beharko da, edo ahozkotik idatzizkotik baino lehentasun handiagoarekin, edo lehen mailako eskoletatik goi-mailakoetatik baino. Lehentasunak argi edukitzeari oso garrantzitsua deritzo Fishmanek hizkuntza indarberritzeari ekiteko orduan.

Fishmanek behin eta berriz dio ezerk ez duela ordezkatzen hizkuntza eguneroko bizitza informalean presente egotea, ezinbestekoa baita hori hizkuntzak bizirik iraun dezan. Dena den, arlo hori oso zaila da lantzen eta aurrerapenak ez dira errazak lortzen zenbait arrazoi direla medio: alde batetik, plangintzarako aukera handirik ez du ematen eremu informalak eta, beste aldetik, hizkuntza indarberritzearen aldekoek Y-dunak nagusi diren gizarte-eremuetatik aldentzea eskatzen du eta horien ordez X-eraz funtzionatuko duten sareak sortzea.

Gainera, RLSk askoz ere eragin handiagoa eta zabalagoa izan dezake gizateriaren arazo nagusiak konpontzen laguntzeko potentziala baitu. Izan ere, hizkuntzak ordezkatzeko prozesuak asko azkartu dira bizimodu modernoaren alderdi negatiboen ondorioz (aldaketa sozialeko eta botere teknikoko desberdintasun handiengatik) eta horren beste ondorio batzuk anomia eta alienazioa dira. Beraz, RLSrekin, hizkuntzaren gaiari heltzeaz gain, modernotasunaren dislokazio soziokulturala gainditzeko bidea irekitzen da.

RLS (*Reversing Language Shift*), hizkuntza indarberritzea: funtzioak eta erabilgarritasuna galduz doan hizkuntza batek hizkuntza-ordezkapeneranzko joera hori etetea eta egoera iraultzea. Joshua A. Fishmanek ordezkapena jasaten ari diren hizkuntzak indarberritzeko sortutako eredua da. Hizkuntza bat indarberritzeko, hiztunak eta jardunguneak edo eremuak irabazi behar ditu. Fishmanek zortzi mailako eskala sortu zuen hizkuntzaren egoeraren diagnostikoa egiteko eta maila bakoitzean hizkuntzaren ordezkapen prozesua geldiarazteko zeintzuk diren lehentasunak definitu zituen. Garrantzi handia ematen dio hizkuntza harreman hurbilenetan erabiltzeari.

5.5. EUSKARA INDARBERRITZEKO SAIOEN ADIBIDEAK

Euskal Herrian ahalegin asko egin dira euskara bultzatzeko batez ere azken hamarkadetan. Hemen horietako batzuk aztertuko dira, maila, alor eta mota desberdinetakoak: bi maila orokorrekoak, hau da, makro mailakoak (bata gizarte-mugimenduak bultzatua eta bestea gobernuaren eskutik doana); eta beste hirurak mikro mailakoak (bata ekimen pribatuan batez ere erakunde-mailari dagokiona eta besteak pertsonen arteko hizkuntza-erabilerari buruzkoak talde-mailari dagokiona eta pertsona-mailakoa).

5.5.1. Bai Euskarari Akordioa

Euskalgintzako hainbat eragilek Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseilua sortu zuten 1997an euskararen normalizazio-prozesua azkartzeko eta hiru lan-ildo hartu zituen hasieratik: gogoeta, plangintza orokorra eta presio edo eragin soziala.

Bai Euskarari Akordioa eskaini zitzaien arlo guztietako gizarte-eragileei, eta horren bidez euskararen normalizazio-prozesuan parte hartzeko hitza eman zuten. Akordioan parte hartzen zutenek hizkuntza-normalizaziora iristeko plan estrategikoa prestatu eta ezartzeko konpromisoa hartzen zuten.

Lehen eragileen sinatze ekitaldia 1998an egin zen (Koldo Castañeda, 2002); geroztik, beste eragile batzuei zabaldu zitzaien eta guztira 899 erakundek sinatu zuten akordioa. Sektoreka antolatuta (Hegoaldean 23 eta Iparraldean 10: mundu asoziatiboa, sindikatuak, mundu asistentziala, lan-mundua, unibertsitatea…), bakoitzak sektorean euskarak zuen egoeraren diagnostikoa egin zuen AMIA matrizea erabilita, helburuak formulatu zituzten eta sektore bakoitzerako euskararen inguruan hartzeko modukoak ziren konpromisoak zehaztu zituzten eta horietatik gutxienekoak zeintzuk ziren erabaki. Ondoren, eragile bakoitzak konpromiso horietatik zeintzuk hartuko zituen adierazi zuen. Hala, 2000. urtean Hegoaldean eta 2001ean Iparraldean 520 gizarte-eragilek konpromiso minimoak hartu zituzten.

Konpromisoak erakunde-mailakoak edo sektore-mailakoak ziren eta funtzionamenduaren arlo desberdinak hartzen zituzten: hizkuntza-paisaia, barne-komunikazioa, langile edo kideen euskalduntzea, giza baliabideen kudeaketa, bezeroen aurreko komunikazioak, euskara lan-hizkuntzatzat hartzea, euskara-plan osoa lantzea eta egiturazkoak (Gutiérrez, 2008).

Kontseiluak Bai Euskarari Ziurtagiria sortu zuen erakunde batek konpromisoak betetzen dituela ziurtatzeko. Hiru maila ditu ziurtagiriak: *Bidean* euskararen normalizaziorako gutxieneko neurriak hartzen dituzten erakundeentzat, *Guk zerbitzua euskaraz* zerbitzua euskaraz eskaintzen dutenentzat eta *Guk zerbitzua eta lana euskaraz* zerbitzua euskaraz eskaini eta euskara lan-hizkuntzatzat duten enpresa, saltoki eta bestelako erakundeentzat. Erakunde bati zein ziurtagiri mota dagokion erabakitzeko, arlo hauek aztertzen dira: erakundeko kideen hizkuntza-gaitasuna, irudia eta hizkuntza-paisaia, kanpo harremanak, barne harremanak eta programa informatikoak.

18. irudia: Bai Euskarari Ziurtagiriaren mailak.

Geroztik, Bai Euskarari Akordioa herrietara zabaltzeko ekimena gauzatu zuen Kontseiluak 2000. urtean hasita.

Kontseiluak Eusko Jaurlaritzarekin hitzarmena sinatu zuen 1999an Bai Euskarari Akordioa eta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia bateragarri egiteko.

Prozesu osoan garrantzi handia eman zaio metodologiari: enpresetan plan estrategikoak egiteko metodologia erabili da gizarte-eragileekin eta hori berrikuntza nabarmena izan zen euskal-

gintzan. Gainera, adierazpen sinbolikoetatik haratago joan nahi izan da eta horregatik konpromiso zehatzak hartzeko bidea sustatu da maila desberdinak ezarrita. Prozesu guztian komunikazioa ere nabarmen landu da, jendaurreko agerpen asko egin dira, komunikabideetan presentzia handia izan du eta Internet ere erabili da gizarteari egiten ari zenaren berri emateko. Beste ezaugarri garrantzitsu bat parte hartzea izan zen, bai gizarte-eragileena sinatze-ekitaldietan edo plan estrategikoa lantzeko prozesuan eta hori gauzatzean, baita herritarrena ere egin ziren ekitaldietan (Bai Euskarari kanpaina eta bukaeran futbol-zelaiak betetzea, edo lanordu bat akordioaren alde emateko kanpaina) (Gutiérrez, 2008).

5.5.2. Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN)

Eusko Jaurlaritzak antolatutako Euskararen Aholku Batzordeak aurreko bi hamarkadetan gauzatutako hizkuntza-politikaren emaitzak eta hizkuntza-normalizazioan erabilitako baliabideak aztertu zituen 1996 eta 1998 artean (Miren Mateo, 2002). Hortik abiatuta Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia onartu zuen Euskararen Aholku Batzordeak eta Eusko Jaurlaritzak. Plan hori 1999an onartu zuen Eusko Legebiltzarrak.

Diagnostikoa egiteko AMIA (hurrengo puntuan, 5.5.3.an, sakontzen da kontzeptu honetan) matrizea erabili zuten eta han jasotako aurkako eta aldeko faktoreak kontuan hartuta EBPN izeneko plan estrategikoa diseinatu zuten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoak aurrera eramateko ekimenak eta lan-lerroak bideratzeko. Helburu nagusia hau zen: *euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea* (Eusko Jaurlaritza, 1999). Hiru **helburu estrategiko** ezarri zituzten:

- **Euskara ondorengoetaratzea**: euskararen transmisioan etenik ez egotea.
- **Euskararen erabilera**: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza. Euskaldun gazteentzat euskara helduaroan atsegin eta gaztelania bezain baliozko egitea eta hori lortzeko euskarazko zerbitzuen eskaintza eskolaz kanpoko beste erabilera eremuetara zabaltzea.
- **Euskararen elikadura**: euskaraz eroso eta erraz hitz egiteko elikatzea liburu, irrati, aldizkari, egunkari, telebista eta abarren bidez.

Helburu estrategiko bakoitzari **helburu zehatzak eta egitasmo-proposamenak** gehitu zizkioten diagnostikoko arloak erabilita: irakaskuntza, euskalduntze-alfabetatzea, familia bidezko jarraipena, administrazioa, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak, enpresa mundua, aisia, kirola, erlijioa, corpus-plangintza eta euskararen kalitatea, prentsa idatzia, liburugintza, irratia, telebista, publizitatea eta kulturgintza.

Horretaz gain, EBPNk hizkuntza-politikarako behar diren giza eta diru-baliabideei buruzko irizpideak ezartzen ditu.

EBPN herrietara hedatzeko hamar eredu desberdin sortu ziren biztanle-kopurua eta egoera soziolinguistikoa kontuan hartuta eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburuetarako eredu bana prestatuta.

Hona hemen udalerrien sailkapena:

HIZTUN EUSKALDUN-KOPURUA	BIZTANLE-KOPURUA		HIRIBURUAK		
	>10.000	<10.000			
< % 15	A1	A2	BILBO	DONOSTIA	GASTEIZ
% 15-% 50	B1	B2			
% 50-% 70	C1	C2			

13. taula: udalerrien sailkapena EBPNren arabera.

5.5.3. Mikroplanak

Makro mailako ekimenak oso garrantzitsuak dira egiten ari denari osotasuna ematen diotelako, marko orokorra ezarri eta norabidea finkatzen dutelako eta duten bolumenagatik sarritan gizartean oihartzun handia izaten dutelako. Dena den, ekimen horiek aplikatzerakoan mikro mailari heldu behar izaten zaio neurriak eraginkorrak izatea nahi bada. Atal honetan, plangintzaren aplikaziorako maila sistemikoetatik barrenengoak aurkeztuko dira, hain zuzen ere, organizazioa, taldea eta norbanakoa. Maila hauetan oraindik ere zeregin handia dago eta garrantzitsua izango litzateke praktikaren eta teoriaren loturak indartzea eta beste jakintza-arlo batzuetan landutakoak aplikatzea.

Edozein planek honako faseak ditu:

- Planaren **definizioa**: horretarako komenigarria izango da egoeraren diagnostiko ona edukitzea, helburuak argi ezartzea eta helburu horietara iristeko ekintzak eta bitartekoak zehaztea (nork zer noiz nola egingo duen). Diagnostikorako tresna ezagun bat AMIA matrizea da eta oso erabilgarria da egoera laburbiltzeko balio baitu; lau zatiko lauki batean zati bakoitzean faktore-multzo bat jasotzen da: aukerak, mehatxuak, indarguneak eta ahuleziak. Honen arabera, planaren funtsa izango da aukerak aprobetxatzea norberaren indarguneak erabilita etor daitezkeen mehatxuei aurre egiteko norberaren ahuleziak gaindituta. Plana arrakastatsua izan dadin, garrantzitsua da definizioaren fase honetatik eragileen parte-hartzea bermatuko duten bideak eta teknikak erabiltzea.

AUKERAK (kanpoko faktore positiboak) – – –	MEHATXUAK (kanpoko faktore negatiboak) – – –
INDARGUNEAK (barruko faktore positiboak) – – –	AHULEZIAK (barruko faktore negatiboak) – – –

14. taula: AMIA matrizea.

- Planaren **inplementazioa**: plana exekutatzean edo gauzatzean datza; planak aurrera egin ahala behar diren aldaketak egingo zaizkio, betiere aurreko fasean definitutakoa kontuan hartuta. Inplementazioa behar bezalakoa izan dadin, garrantzitsua da beste faseak ondo prestatuta izatea eta behar besteko bitartekoak izatea dirutan, pertsonetan eta egituretan.
- Planaren **ebaluazioa**: fase honetan planean aurreikusitakoak zein neurritan bete diren aztertzen da; komeni da fase hau ez uztea harik eta plana bukatu arte, batez ere plan luzeetan. Etengabeko ebaluazioa egitea komeni da, inplementazioa egiten ari den bitartean behar diren zuzenketak eta aldaketak egin ahal izateko. Ebaluazioa bi motatakoa izan daiteke: prozesuarena (egindakoak behar bezala egin diren) eta emaitzena (zer lortu den). Adibidez, hiztunen alfabetatzea sustatzeko plan bat egiten bada, prozesuaren ebaluazioan neur daiteke zenbat ikastaro antolatu diren, zenbat jendek parte hartu duen, guztira zenbat eskola ordu eman diren eta abar; baina emaitzak ebaluatzeko, esate baterako, alfabetatze-maila lortu duten ikasleen ehunekoa neurtu beharko da.

Ebaluaziotik ondorioak atera behar dira eta planaren definizioa berritu. Horrek esan nahi du ebaluazioa maila desberdinetakoa izan daitekeela eta planaren garai desberdinetan egin beharko dela, plana bukatu arte zain egon gabe.



19. irudia: PDCA zikloa.

Plangintzaren ziklo honi PDCA zikloa deitzen zaio, faseen ingelesezko siglengatik (*Plan*, *Do*, *Check* eta *Act*; alegia, planifikatu, egin, egiaztatu eta doitu).

Denboraren aldagaia kontuan hartuta planak alde batetik epe laburrerakoak edo operatiboak izan litezke eta beste alde batetik epe luzerakoak edo estrategikoak. Gainera, plan baten barruan hierarkia desberdinetan multzokatu litezke ekimenak: plan batek hainbat programa izan ditzake; programa bakoitzak, berriz, zenbait proiektu eta

proiektu bakoitza jardueretan eta atazetan banatu liteke, orokorrenetik zehatzenera. Dena den, sarritan erakunde bakoitzak bere terminologia erabiltzen du.

Ondoren, mikroplanen adibide batzuk ikusiko ditugu. Euskal Herrian helburu eta jomuga askotara bideratutako mikro mailako planak gauzatu dira, sarritan makroplanen babespean. Aipagarriak dira, besteak beste, transmisioa indartzeko programak, EraLan (http://www.soziolinguistika.org), Buruntzaldeko egitasmoa, merkataritzan eragiteko egitasmoak, Kirola euskaraz, Ulibarri programa (http://www.ulibarri.info/) eta ahozko erabilera sustatzeko egitasmoak. Guztiak hemen jasotzea ezinezkoa denez, goian aipatutako maila bakoitzerako adibide bakar bat azalduko dugu:

- Organizazio-mailarako, lan-munduko euskara-planak.
- Talde-mailarako, Kuadrillategi.
- Eta norbanakoaren mailarako, mintzapraktika-programak (www.mintzapraktika.org).

5.5.4. Lan–munduko euskara–planak

Irakaskuntzan ahalegin eta aurrerapen handiak egin ondoren, nabarmena zen euskaraz ikasitako gehienek lan-mundura jauzi egiten zutenean erdaraz funtzionatu behar zutela. Horregatik eta lanak helduen bizitzan duen garrantziagatik (bai eskaintzen zaion denboragatik, baita sozialki duen garrantziagatik ere) lan-munduan euskara bultzatzeari gero eta garrantzi handiagoa ematen hasi zitzaion, azken urteetan lehentasunezko helburu bihurtzeraino. Arlo honetan erreferentzia garrantzitsua izan da Quebec-en enpresen frantsestean izan duten esperientzia.

Plan pilotuak egin ziren 1990eko hamarkadako hasieran hainbat enpresatan Eusko Jaurlaritzaren parte hartzearekin. Horren ondorioz, arlo sozio-ekonomikoan euskara sustatzeko tresna garatu zen: euskara-planak. Prozesu planifikatua proposatzen zen, hain zuzen ere, enpresako beste hainbat arlotan ekimenak garatzeko metodologia erabilita osagai hauek kontuan hartuta: egoeraren diagnostikotik abiatuta lortu nahi diren helburuetara iristeko egin beharrekoak zehazten dira epe batzuen barruan eta baliabide zehaztuekin.

Hasierako proba pilotuetatik, enpresa mundura hizkuntza-plangintzak indar handiz heldu dira, enpresa bakoitzaren ezaugarriei egokitutako planak ezarriz. Ondorioz, enpresa askoren kudeaketan, hizkuntza-irizpideek garrantzia hartu dute.

Beste plangintza askotan bezala, honako urratsak dira enpresetako plangintzetan eman beharrekoak (Elhuyar, Erabili.com):

Diseinua

Planak izango dituen ezaugarriak definitzen dira fase honetan. Horretarako:

- Enpresaren gaineko informazioa bildu: elkarrizketa eta behaketen bidez enpresaren

ezaugarriak, euskararen presentzia, hizkuntzarekiko sentiberatasunak eta bestelako informazioak biltzen dira.

- Euskara Batzordearekin planaren ardatzak, helburuak, adierazleak eta egitura adostu.

Abiatzea

Diseinuan zehaztutako plana martxan jartzean datza fase hau. Teknikariak fase honetan dituen eginkizun nagusiak:

- Planaren berri eman langile eta arduradunen artean eta haien iritziak bildu.
- Diseinuan zehaztutako ardatzak eta helburuak noiz/nork eta nola gauzatuko dituen zehaztu.
- Planeko egiturak (lantaldeak, euskara-batzordea) abiatu.
- Langileen euskalduntze-programa abiatu.

Garapen-fasea

Fase honetan euskara-planak dakartzan aldaketa nagusiak gauzatzen dira. Teknikariak ondoko lanen ardura izan ohi du:

- Euskara Batzordea gidatu.
- Helburuak lantzen dituzten lantalde edo hobetze-taldeak gidatu.
- Euskalduntzea antolatu eta euskaltegiekiko harremanak gauzatu.
- Planaren eboluzioa jasotzen duten adierazleak elikatu.
- Planaren memoriak landu.
- Euskararen erabilera areagotzeko bitartekoak enpresaren eskura jarri.

Atal honen azken epealdian jarraipen fasearen oinarriak ezartzen dira. Garapenean aurreikusitako egiturak eta neurriak gauzatutakoan, etorkizunean enpresak bere kabuz euskara kudeatzeko. Horretarako, teknikariak ondoko lanak garatzen ditu:

- Euskararen eta planaren egoeraren diagnosia egin.
- Euskararen jarraipena arautuko duen hizkuntza-politika adostu.
- Planaren jarraipena ziurtatuko duen egitura diseinatu.

Jarraipen-fasea

Euskara-planaren garapen-faseak dakartzan aldaketa eta sistematizazio-faseen ostean jarraipen-fasea zabaltzen da. Fase honetan enpresa bera da euskararen kudeaketaren arduradun osoa, eta

soilik aldizkako laguntza jaso ohi du aholkularien aldetik (auditoretza edo ikuskapenak egiteko, itzulpenak, etab.).

Enpresetako euskara-planen azken helburua erakundean euskararen erabilera handitzea da, euskara enpresaren funtzionamenduan txertatzea. Hori lortzeko, hizkuntzaren erabilera lantzeaz gain, euskararen ezagutza eta hizkuntzarekiko motibazioa ere landu behar dira. Beraz, euskara eskoletatik askoz harago doaz euskara-planean jasotzen direnak.

Euskara-planetan enpresaren inplikazioa ezinbestekotzat hartu da hasieratik eta hori bermatzeko plana dutenek euskara-batzordea osatu behar dute, enpresako zuzendaritzaren ordezkapen eta guzti. Euskara-batzorde horren eginkizun nagusia planaren gidaritza izaten da, gaiak aztertu eta hartu behar diren erabakiak hartu edo dagokion organoari bideratu erabaki dezan

Planaren inplementazioan askotan erabiltzen den tresna erabilera-taldeak dira. Talde hauek kalitate planetako komunikazio-zirkuluetan dute oinarria, partaideak langileak dira eta euren eguneroko lanean euskararen erabilerari lotutako gaiak lantzen dituzte motibazioa eta ezagutza ere landuta.

Enpresa askotan euskara-planaren ondorioz hizkuntza-politika esplizitatu eta zehaztera iristen dira hizkuntzen kudeaketa araututa gera dadin erakunde barruan. Hauek dira, beraz, enpresetako planen urrats nagusiak: diseinua, abiatzea, garapen-fasea eta jarraipen-fasea.

Eusko Jaurlaritzak urtero diru-laguntza deialdiak atera ditu euskara-plana duten enpresentzat. Eta gaiak duen garrantziaren adierazgarri LanHitz programa eratu zuen euskara-planen berri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko enpresei. Programa horren barruan euskara-planetarako hainbat tresna ere garatu dira eta Interneten jarri dituzte.

Erakunde batek euskararen normalizazioan egin dituen aurrerapenak frogatzeko bi ziurtagiri daude: Kontseiluak sortutako Bai Euskarari Ziurtagiria, Bai Euskarari Akordioari buruzko atalean azaldu dena, eta Eusko Jaurlaritzak sortu duen Bikain ziurtagiria (Eusko Jaurlaritzaren 53/2009 Dekretua). Bikain ziurtagiriak hiru maila ditu eta antz handia du kalitatea kudeatzeko EFQM ereduarekin.

Bikain ziurtagirian guztira 1.000 puntu lor daitezke euskarak erakundean duen presentzia, erabilera eta kudeaketa baloratuta lau ardatzetan: komunikazioa eta irudi korporatiboa, kanpo-harremanak, barne-harremanak eta hizkuntza-kudeaketa. Talde batek egindako ebaluazioan erakundeak lortzen duen puntu-kopuruaren arabera hauek dira ziurtagiriaren hiru mailak:

- Beltza: oinarrizko maila da (200-399 puntu).
- Zilarra: tarteko mailakoa (400-699 puntu).
- Urrea: goi-maila (700-1.000 puntu).

Lan-munduaren arloan aurrerapenak egin badira ere, oraindik ere enpresen gutxiengoak dauka edo eduki du euskara-planen bat.

20. irudia: Bikain ziurtagiriaren mailak.

5.5.5. Pertsona arteko erabilera sustatzeko programak

Hizkuntza bat bizi dadin ezinbestekoa da hiztunak edukitzea eta hiztun horiek hizkuntza erabiltzea. Hizkuntza biziberritzeko, erabilera sustatu nahi izaten da, baina askotan zaila izaten da pertsonen arteko hizkuntza-ohituretara iristea, eremu oso pribatua delako. Horren mota desberdinetako ekimenak jarri izan dira abian: ezagunak dira Euskal Herrian hiztunak kontzientziatzeko eta euskaraz egitera animatzeko egin izan diren publizitate-kanpainak. Dena den, azken urteetan zenbait ekimen sortu dira zuzenean pertsona artean euskararen erabilera zuzenean bultzatzeko eta horietako bi azalduko dira hemen.

Kuadrillategi egitasmoa

Gazteen lagunartean euskararen erabilera sustatzeko hainbat herritan egin den esku-hartzea eta ikerketa da Kuadrillategi egitasmoa. Batez ere 2000. urtetik aurrera egin dira esperientzia sistematizatuak herrietako euskara-elkarteen edo udaletako euskara-zerbitzuen eta Kuadrillategi Ikerketa eta Aholkularitza elkartearen eskutik (Egizabal eta beste, 2004).

Talde batean euskararen aldeko jokaera errazago gerta dadin zenbait baldintza objektibo bete behar dira: taldekide gehienek jakin behar dute euskaraz, taldearen lidergoa euskaldunen esku egon behar da, taldearen inguruko giroa euskalduna izatea. Badira, gainera, beste zenbait baldintza subjektibo: euskaraz egitea desiragarritzat jo behar dute, euskaraz egitea egingarria eta erabilgarria iruditu behar zaie, euskaraz egiteak neurriko ahalegina eskatu behar die.

Egitasmo honen oinarria da lagun-taldearen arauek finkatzen dutela zein hizkuntzatan egin eta erdaraz egiten badute, hori aldatzeko modu bakarra taldearen araua gainditzea dela, hain zuzen ere, euskaraz hitz eginez, horrela araua hautsi egiten baita. Horretarako, aisialdiko eskaintza bat egiten zaie herriko gaztetxoen lagun-taldeei eta eskatzen zaie egitasmoan parte hartzen ari diren denboran euskaraz egiteko konpromisoa.

Beraz, Kuadrillategi egitasmoa aisialdiko eskaintza soilaren itxurarekin eskaintzen zaie gaztetxoei. Gaztetxoek taldeka eman behar dute izena, B edo D ereduan ikasiak izan behar dira eta egitasmoko jardueretan euskaraz hitz egin behar dute. Egitasmoan kulturako tailerrak eta oporraldietako jarduera ludikoak eskaintzen dira dinamizatzaile baten ardurapean.

Bi urtean, 2001etik 2003ra, egindako ikerketan emaitza hauek lortu zituzten:

	Hasierako gazte-kopurua	Bukaerako gazte-kopurua
Euskararen aldeko joera	55 (% 52,3)	62 (% 59)
Joera nabarmenik ez	27 (% 25,7)	40 (% 38,1)
Erdararen aldeko joera	23 (% 21,9)	3 (% 2,8)
Guztira	105 (% 100)	105 (% 100)

15. taula: Kuadrillategi egitasmoaren emaitzak 2001-2003 (Egizabal eta beste, 2004).

Datu horien arabera, beraz, Kuadrillategi tresna erabilgarria izango litzateke gaztetxoen lagun arteko harremanetan euskararen erabilera sustatzeko.

Mintzapraktika-programak

Programa hauetan euskaraz hitz egiteko ohitura duten pertsonak harremanetan jartzen dituzte ohiturarik ez dutenekin euskara-maila hobetu eta erabiltzeko ohitura indartzeko. Sarritan tokian tokiko euskara-taldeak antolatzen du programa, eta berrogeita hamarren bat horrelako egitasmo daude Euskal Herri osoan, bakoitza bere izenarekin: Mintzalagun, Berbalagun, Zaharberri, Solaskide, Mintzakide (www.mintzapraktika.org)…

Programari esker hiru, lau edo bost pertsonako taldeak sortzen dira, euren gustuko ekintzak egin ditzaten, astean behin elkartuta eta horretaz gain noizean behin ekintza osagarriak antolatzen dira talde guztientzat. Gainera, urtean behin Mintza Eguna antolatzen da Euskal Herriko osoko mintzapraktika-programetako jendea elkartzeko.

Horrelako lehen programa Donostian sortu zen 1993an Bagera euskara-taldearen eskutik eta gero beste herri batzuetara hedatu zen. Ekimenaren arrakasta ikusita, Topaguneak (euskara-elkarteen federazioak) eta zenbait euskaltegik egitasmoa gehiago landu zuten eta hedatu egin zuten.

Aurrez aurreko programez gain, badira programa birtualak ere, Internet bidez egiten direnak. Ekimen horiek e-mintzapraktika izena dute.

Programa honen bidez euskararen inguruko kezka bati konponbidea eman nahi zaio; hain zuzen ere, azken urteetan euskaraz dakitenen kopuruak gora egin du, baina euskaraz egiten dutenen kopurua ez da hainbeste igo eta horrek mugatu egiten du euskararen erabilera. Mintzapraktika-ekimenaren bitartez, euskararen erabileran gehien eragiten duten faktoreetan eragin nahi da: hiztunaren euskaraz hitz egiteko gaitasun erlatiboan, harreman-sareko euskaldunen dentsitatean eta hizkuntzarekiko atxikimenduan. Gainera, iristen oso zaila den eremu batera iristea lortzen dute; alegia, eremu pertsonalera, harreman pertsonalen arlora, bizitza pribatura (Oskar Zapata, 2007).

Hauek dira antolatzaileek partaideen helburu pertsonalez gain landu nahi dituzten helburuak: euskal hiztunen kopurua handitzea, euskara erabiltzeko gune berriak irabaztea, euskaraz egiteko sare berriak sortzea, euskara naturaltasunez transmititzea ingurune informaletan, hizkuntzarekiko atxikimendua sortzea. Erronken artean, antolatzaileek programa hauen eraginkortasuna neurtzearena aipatzen dute.

Katalunian ere bada antzeko programa bat, *Voluntaris per la llengua* izenekoa. Han bikoteak egiten dituzte eta 5.000 bikote inguru egitera iritsi dira (Guerrero eta Sanz, 2008).

Asko dira, beraz, euskara sustatzeko azken hamarkadetan abian jarri diren ekimenak, auzo-mailakoak zein nazio-mailakoak. Hizkuntza aurrera ateratzeko nahia adierazten du horrek guztiak.

Dena den, sarritan aipatu izan dira ekintzailetasun hutsaren arriskuak eta komenigarria izango litzateke hizkuntza biziberritzeko ekintzen inguruko ikerketa indartzea, ekimenak zenbateraino diren eraginkorrak aztertzeari lehentasuna emanda, diziplina anitzeko ikuspegia erabilita.